

23/12

irizpena

Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileen parte hartze ekonomikorako irizpide orokorrei buruzko

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko urriaren 19an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

The background features a complex pattern of overlapping, thin, light blue circles that create a sense of depth and movement. A solid, medium-blue horizontal bar spans across the middle of the page, partially overlapping the circular pattern. The text 'irizpena' is written in a white, lowercase, serif font, with a small dot above the 'i'. To its right, the number '23/12' is displayed in a white, sans-serif font, with the '23' and '12' separated by a forward slash. The overall aesthetic is clean and modern, with a focus on geometric shapes and a cool color palette.

irizpena 23/12

I.- SARRERA

2012ko urriaren 1ean Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren idazki bat sartu zen. Idazki horretan, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileen parte hartze ekonomikorako irizpide orokorreiburuzko dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Irizpena egin zaion dekretu-proiektuaren helburua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileek izango duten parte hartze ekonomikorako irizpide orokorrak arautzea da, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

23/12j

Berehala dokumentuaren kopia bidali zitzaion Kontseiluko osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta beraien berri emateko lan batzorde egokiari, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen Araudian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Garapeneko Batzordea 2012ko urriaren 17an batzartu zen, irizpenaren aurreproiektuko lehenengo proposamena eztabaidatzeko asmoz. Egun berean, batzordeak ondoko irizpen proiektu hau onetsi zuen, Euskal EGABen osoko bilkuran 2012ko abenduaren 19an aurkeztu zena. Aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuaren testuak zioen azalpena, 20 artikulua (5 kapitulutan banatuak), 2 xedapen iragankor eta 3 azken xedapen dauzka.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea
2. artikulua.- Definizioak

- 3. artikulua.- Eremua
- 4. artikulua.- Doako zerbitzuak
- 5. artikulua.- Prezio publikoa daukaten zerbitzuak
- 6. artikulua.- Ordaindu behar duten pertsonak

II. KAPITULUA.- PREZIO PUBLIKOA ZEHAZTEA

- 7. artikulua.- Prezio publikoa zehazteko irizpideak
- 8. artikulua.- Prezio publikoaren aplikazio partziala

III. KAPITULUA. ERABILTZAILAREN PARTE HARTZE EKONOMIKOA

- 9. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoak
- 10. artikulua.- Prezio publikoa osorik ordaintzen den kasuak
- 11. artikulua.- Salbuespen kasuak
- 12. artikulua.- Hobari kasuak

IV. KAPITULUA. GAITASUN EKONOMIKOA ZEHAZTEA

- 13. artikulua.- Gaitasun ekonomikoaren balorazioa
- 14. artikulua.- Errenta
- 15. artikulua.- Ondarea
- 16. artikulua.- Gaitasun ekonomikoa
- 17. artikulua.- Bizikidetzaren unitatea

V. KAPITULUA. FINANTZAKETAKO FORMULA ALTERNATIBOAK ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDAINKETA ZATI BATEZ GERORATZEA

- 18. artikulua.- Finantzaketako formula alternatiboak
- 19. artikulua.- Ordainketa zati batez geroratzea
- 20. artikulua.- Zorra aitortzea

XEDAPEN IRAGANKORRAK

- Lehenengoa.- Erabiltzaileen eskubideak
- Bigarrena.- Prezio publikoen arauak egokitzea

AZKEN XEDAPENAK

- Lehenengoa.- Ordezko araubidea
- Bigarrena.- Erreferentziako adierazleen publizitatea
- Hirugarrena.- Indarrean sartzea

ZIOEN AZALPENA

Zioen azalpena hasteko, esango dugu Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburu nagusia herritar guztien gizarte zerbitzuen eskubide subjektiboa bermatzea dela, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bat (aurrerantzean GZES) egituratuz.

23/12 

Sistema horren egituraketaren zati bat denez gero, legezko testuak, IV. tituluari, sistema horren finantzaketa eredu arautzen du. Finantzaketarako iturrien artean, 54. artikuluan, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezio publikoak edo tasak aurreikusten dira, eta 57. artikuluan parte hartze ekonomiko horren funtsezko elementuak finkatzen ditu.

Azalpena bukatzeko, adierazten du agindu hori betetze aldera dekretu hau onetsi dela, eta dekretu honen bidez GZESaren esparruan ematen diren zerbitzuei erabiltzaileen parte hartzerako aplikatu behar zaizkien irizpide orokor eta komunak ezarri direla.

Irizpide horien barruan, parte hartze ekonomikoko ereduaren oinarriko alderdiak sartzeko dira, lurralde autonomiko osoan esparru homogeen bat bermatze aldera. Irizpide horiek bete beharko dituzte GZESaren eremuan eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek, nahiz eta euskal administrazio publiko bakoitzak arauketa espezifikoak onetsi, zeinek bere araudiaren esparruan.

XEDAPEN-GORPUTZA

I. kapitulua. Xedapen Orokorra (1 – 6 artikulua). Hemen dekretuaren xedea ezartzen da; zerbitzu eta prestazio mota bakoitzaren definizioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko ...ko

.../... Dekretuan ezarri zenez. Dekretuaren aplikazio eremua ere finkatzen da. Helburua GZESeko zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileek izango duten parte hartze ekonomikorako irizpide orokorrak arautzea da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Era berean, erabiltzaile guztientzat doakoak izango diren zerbitzuak definitu dira, haien gaitasun ekonomikoa gorabehera, prezio publikoaren mende egongo direnak, eta prezio publikoak ordaindu beharko dituzten pertsonak.

II. kapituluak prezio publikoaren zehaztapena arautzen du, bi artikuluren bidez (7 eta 8. artikulua).

23/12*i*

7. artikulua prezio publikoa zehazteko irizpideak jasotzen ditu. Horrela, ondoko hauek izango dira kontuan:

- Zerbitzuaren eta bere prestazioen kostua. Kostu horren erreferentziazko adierazlea zerbitzu bakoitzari aurreko ekitaldian aplikatutako hitzartze prezioa izango da.
 - ✓ Eusko Jaurlaritzaren eskumena diren zerbitzuen kasuan, erreferentziazko adierazlea Eusko Jaurlaritzaren hitzartze kostuak zehaztuko du.
 - ✓ Foru aldundien eskumena diren zerbitzuen kasuan, lurralde historiko bakoitzean dagokion foru aldundiak aplikatzen duen hitzartze kostuak zehaztuko du adierazle hori. Eta berdintasun printzipioa aplikatuz, autonomi erkidegoaren barruan zerbitzu bererako ordaintzen den kosturik txikienaren eta handienaren arteko aldea ezin da izan kostu txikienaren %33 baino handiagoa.
 - ✓ Udalen eskumena diren zerbitzuen kasuan, adierazle hau lurralde historiko bakoitzeko udalen batez besteko hitzartze kostuaren arabera zehaztuko da, lurralde historiko bakoitzean. Eta berdintasun printzipioa aplikatuz, autonomi erkidegoaren barruan zerbitzu bererako ordaintzen den kosturik txikienaren eta handienaren arteko aldea ezin da izan kostu txikienaren %33 baino handiagoa.

- Zerbitzu eta prestazio motak.
- Zerbitzuaren eta hura osatzen duten prestazioen erabilera maila.

Prezio publikoak gehienezko zenbait muga edukiko dituela aipatzen da.

8. artikulua agindu zuen zerbitzuak hornitzeko eskumena daukaten euskal administrazio publikoek, prezio publikoak arautzen dituzten xedapenetan, haien aplikazio partziala ahalbideratzen duten irizpideak zehaztuko dituztela, zerbitzuaren erabilera eteten denerako eta zerbitzu bi edo gehiago aldi berean erabiltzen direnerako.

III. kapituluaren (9 – 12. artikulua) erabiltzailearen parte hartze ekonomikoa arautzen da. 9. artikuluan, batetik, adierazten da erabiltzaileek beti gutxienera zenbateko bat bermatuta edukiko dutela urtean, nahi duten moduan erabiltzeko, zerbitzuen izaeraren arabera zehaztuko dena. Bestetik, baterako ordainketaren mendeko zerbitzuei aplikatu behar zaizkien erabilera libreko zenbatekoak arautzen ditu. 10. artikuluan, ordaindu beharra duten pertsonen zerbitzuaren prezio publikoa osorik ordaindu behar duten kasuak ageri dira. 11. artikulua, prezio publiko hori ordaindu beharretik salbuetsiko diren kasuak azaltzen dira, eta 12.ean, hobariak jaso ahal dituzten kasuak.

IV. kapituluaren (13 – 17 artikulua) ahalmen ekonomikoaren zehaztapenari buruzkoa da. Zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren banakako ahalmen ekonomikoa eta zerbitzua erabiltzen duen bizikidetzaren ahalmen ekonomikoa baloratzerakoan, prezio publikoan izango duten parte hartzea zehazte aldera, errenta eta ondarea kontuan hartu beharko lirateke. Gero, horiek biak (errenta eta ondarea) zehazteko irizpideak ematen dira eta bizikidetzaren unitatea definitzen da.

V. kapituluaren prezio publikoen ordainketa finantzatzeko eta zati batez geroratzeko formula alternatiboei buruzkoa da (18 – 20. artikulua).

Testuaren amaieran bi **xedapen iragankor** daude. Haien bidez, batetik, dekretu hau indarrean sartzen den unean zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen lehen zeuzkaten eskubide berberak (eta ez gutxiago) mantendu ditzatela bermatzen

da. Bestetik, parte hartze ekonomikoa arautzen duten xedapenak egokitzen dira. Gainera **hiru azken xedapen** daude: ordezeko araubideari buruzkoa, erreferentziatzko adierazleen publizitateari buruzkoa eta dekretua indarrean sartzeari buruzkoa.

III.- GOGOETAK

III.1 GOGOETA OROKORRAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburu nagusia herritar guztiek gizarte zerbitzuak jasotzeko duten eskubide subjektiboa bermatzea da, GZES baten egituraketaren bidez. Lege horretan, GZES horren finantzaketarako, besteak beste, erabiltzaileek ordaintzen dituzten prezio publikoak edo tasak aipatzen dira (54. artikulua). Gainera, legeak parte hartze ekonomiko horretarako funtsezko elementuak finkatzen ditu (57. artikulua).

54. artikulua. Finantzaketa iturriak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ondoko hauen kontura finantzatuko da:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak.*
- b. Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrak.*
- c. Udalen aurrekontuak.*
- d. Erabiltzaileek ordaintzen dituzten prezio publikoak edo tasak.*
- e. Antolaketa juridikoaren arabera xede horretarako bideratzen den beste edozein ekarpen ekonomiko.*

Kontsultan aipatzen den dekretu-proiektuaren xedea, hain zuzen ere, erabiltzaileek GZESaren zerbitzuen finantzaketan ekonomikoki parte hartzeko dauden irizpide orokorrak finkatzea da, lurralde autonomiko osoan esparru homogeneo bat sortzeko. Halere, euskal administrazio publiko bakoitzak bere araudia onets dezake bere arauketaren barruan. Horrenbestez, eta ondorio horietarako, ondokoa ezartzen du:

- a) GZESean dauden zerbitzuak doakoak izatea edo ez (hau da, prezio

- publikoa edukitzea), eta zerbitzu horiek osatzen dituzten prestazio tekniko, teknologiko eta osagarriak,
- b) aplikatu beharreko prezio publikoak zehazteko irizpide orokorrak, eta
- c) erabiltzaileak prezio horietan izango duen parte hartze ekonomikoa zehazteko irizpide orokorrak.

Batzorde honek balorazio positiboa egiten du ekimenaz. Dekretu-proiektu horren mamia aztertuta, badaude aipatu beharreko zenbait gauza. Zehazki:

- Administrazioa izatea ahalegin handia egin behar duena, bizikidetzaren unitatea (17. artikulua) eta zerbitzu-unitatea definitu behar dituelako, erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa baloratu behar duelako (13. artikulua), eta errenta (14. artikulua) eta ondarea (15. artikulua) definitu behar dituelako.
- Administrazioak ordaindu behar duten pertsonen zorra aitortzea ahalbideratzea, estaltzen ez den prezio publikoaren zatian (20. artikulua). Horrela, zerbitzuaren bermatzaileak arriskua bere gain hartzen du.

Aitzitik, alderdi hauei buruz arreta deitu nahi genuke:

- Gure ustez oso testu zehatza da eta zerbitzu mota bakoitza kontuan hartzen du. Hori positiboa da, gure ustez, baina testua astunegia da horregatik hain zuzen ere. Badakigu bi ezaugarriak (zehaztasuna eta laburra izatea) konbinatzea gauza zaila dela, baina ahalegin handiagoa egitea gomendatzen dugu.
- Egoera jakin batzuk aipatzeko orduan homogeneotasun eza ikusten dugu.
 - ✓ Batetik, dekretu-proiektuaren 4 eta 5. artikuluetan genero indarkeria “etxeko tratu txarrak” edo “etxeko indarkeria” gisa aipatzen da. Beste araudi batzuetan, berriz, “etxean tratu txarrak ematea” bezalako adierazpideak daude. Egia da proiektu honek adierazpide horiek hitzez hitz transkribatu baino ez dituela egin, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotzen

diren bezala, baina ezin dugu aipatu gabe utzi.

- ✓ Bestalde, euskal araudian homogeneousitasun eza atzematen dugu “bizikidetzaren-unitatea” definitzeko orduan, beste araudi batzuen aldean (17. artikulua).
- 4 eta 5. artikuluetan, Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko “doako” zerbitzuak eta “prezio publikoa daukaten” zerbitzuak aipatzen dira. Hurrengo artikuluetan, berriz, zenbait irizpide zehazten dira, LGSaren edo erreferentziako beste adierazle batzuen zenbait portzentajetan finkatuta (%).

Hain zuzen ere, zenbait muga bermatzaile ezartzen dira, besteak beste, erabiltzaileak ordaindu behar duen prezioa ez dadila izan erreferentziako adierazlearen %90 baino handiagoa¹, edo zerbitzu osagarrien kostuaren %100 ordaindu dadila (ostalaritzakoak gutxi gorabehera: ostatu ematea, janaria, garbiketa) eta, egoitzetan, laguntzako zerbitzuen %25.

Eta hori da, hain zuzen ere, kontu hauek sortzen diren uea:

- ✓ Batetik, zerbitzuen eta prestazioen finantzaketa zehazten da, Prestazio Zorroaren Dekretuan definitzen diren terminoak berretsiz. Gure ustez, azalpen hobegorik ez dagoen bitartean, ez dago argi zergatik ezarri diren portzentaje horiek prezio publikoa zehazteko.

Baina gainera, dekretua onetsiz, euskal administrazioen ekarpen ekonomikoa oraingoa baino askozaz ere handiagoa izan beharko da (pertsonei bakoitzeko 1.150 euro gehiago urtean, ondare-gaitasun ekonomikorik ezean).

Hori memoria ekonomiko bat eduki beharri lotuta dago zuzenean. Izan ere, memoria hori eduki gabe, ez daukagu funtsatutako irizpiderik baloratzeko irizpide horiek (eta irizpideok

¹ Gogora dezagun zerbitzuaren kostuaren (eta bere prestazioen) erreferentziako adierazlea aurreko ekitaldian zerbitzu bakoitzari aplikatutako hitzartze prezioa dela (ikus 7. artikulua).

adierazle bakoitzaren portzentajeetan zehaztea) egokiak diren edo ez; are gehiago, ez daukagu argi neurri hori gaur egun bideragarria den eta denboran jasagarria den.

- ✓ Bestetik, egoitzetan adineko pertsonak zaintzen dituzten langileek egiten duten lana Gizarte Zerbitzuen Sistemari edo Osasun Sistemari egotzi ahal zaio. Gure iritzian, gizarte zerbitzuen zerbitzu osagarria izan behar da (altxatzen, janzten, garbitzen, paseatzen, lekuz aldatzen, komuna erabiltzen laguntzea, eta higieneko bestelako zerbitzuak), eta hori argi eta garbi utzi beharko litzateke, kokapen arazorik ez dadin sortu.
- Azkenik, erabiltzailearen parte hartze ekonomikoko erabilera libreko zenbatekoei dagokienez, (9. artikulua), ez deritzogu oso egokia zenbateko horiek LGSren azpitik geratzeari.

23/12 

III.2 GOGOETA ZEHATZAK

Zioen azalpena

Azpimarratu behar dugu Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoera duten pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea ez dela aipatu ere egin. 1.2 artikuluan, ordea, arau horren erreferentzia aipatzen da, aurreko paragrafoan aipatutako irizpideak aplikatzeko orduan kontuan izan beharrekoen artean.

Ohar hau egiteko arrazoia da, uztailearen 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak Mendetasun Lege honetan egin zituen aldaketa sakonak kontuan izanik (hain zuzen ere, zenbait prestazio murriztuz, ordainketa jakin batzuk atzerako eraginez ere murriztuz eta “baterako ordainketa” gorantz berrikusiz, eta autonomi erkidegoei kasu horietan gaitasun gehiago emanaz), uste dugula ez legokeela gaizki errege lege-dekretuaren aldaketa horiek aipatzea, euskal administrazioak arau honen aurrean daukan jarrera argiago azaltzeko, bereziki jarrera ez bada arauaren aldekoa.

Gure iritzian, kontsultarako aurkeztu zaigun testua geure 12/2008 Legea garatzen duen araua da. Horregatik, gogoeta hau dekretuaren zioen azalpenaren inguruan egin nahi dugu: komeni litzateke zioen azalpenean adieraztea zein neurritan eragin lezaketen (edo ez) irismen orokorreko aldaketa horiek arauzko garapen propioan, batez ere kontuan izanik baterako ordainketaz hitz egiten ari garela.

4. artikulua, Doako zerbitzuak, eta 5. artikulua, Prezio publikoa daukaten zerbitzuak

23/12*i* Gogoeta orokorretan aipatu dugunez, homogeneousotasun eza atzeman dugu egoera jakin batzuk aztertzerakoan. Genero indarkeria aipatzen denean “etxeko tratu txarrak” edo “etxeko indarkeria” erabiltzen dira. Beste araudi batzuetan, berriz, “etxean tratu txarrak ematea” esaten da.

9. artikulua. Erabilera libreko zenbatekoak

Gogoeta orokorretan azaldu dugunez, ez gaude ados erabilera libreko zenbatekoak LGSaren azpitik egotearekin.

17. artikulua. Bizikidetzaren unitatea

Batetik, ez dugu ulertzen ezinduta ez dauden adineko seme-alabak baztertzea. Eta bestetik, arreta deitzen digu, gogoeta orokorrekin esan dugunez, euskal araudian ez dagoela batasunik kontzeptu jakin batzuk definitzeko orduan, kasu honetan “bizikidetzaren unitatea”.

IV.- ONDORIOA

Euskal EGABek uste du gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileen parte hartze ekonomikorako irizpide orokorrei buruzko dekretu-proiektuaren izapidetzea egokia dela, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2012ko urriaren 19an

OE Lehendakaria
Juan María Otaegui Murua
Burgos

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro

23/12  *j*



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1846-12